



## **ALTZOKO UDALA**

Tel. 65 24 13 — Fax: 65 09 55

20268 ALTZO (Gipuzkoa)

### **GAOn 2013an argitaratuta**

## **LURZORU URBANIZAEZINEAN NEKAZAL ERAIKIEN KANPOKO ITXURA ARAUTZEKO ETA AISIAKO NEKAZARITZA ETA ABELTZAINZA JARDUERETARAKO TXABOLAK ETA BORDAK ERAIKI AHAL IZATEKO ORDENANTZA**

### **AURKIBIDEA**

1. HELBURUA
  2. APLIKAZIO EREMUA
  3. NEKAZAL ERAIKINEN KANPOKO ITXURA BALDINTZAK
  4. DEFINIZIOAK
    - 4.1. Aisia jarduera
    - 4.2. Txabola
    - 4.3. Estalpea
    - 4.4. Kutxa
  5. TXABOLAK
  6. ESTALPEAK EDO BORDAK
  7. KUTXAK
  8. KOKALEKUA
  9. LURSAILA
  10. LIZENTZIAK
  11. ALDATUTAKO INGURUA LEHENGORATZEA
  12. ARAU-HAUSTE ETA ZIGORRAK
- XEDAPENAK

### **ERANSKINAK**

1. Azienda larri unitateen baliokidetasunak, 515/2009 dekretuak, irailaren 22koak, abeltzaintzako ustiattegietako arau teknikoak, higieniko-sanitarioak eta ingurumenekoak ezartzen dituenak, xedatutakoaren arabera.
2. Animalia bakoitzeko azalera eraikigarriak.



## ALTZOKO UDALA

Tel. 65 24 13 — Fax: 65 09 55

20268 ALTZO (Gipuzkoa)

### **LURZORU URBANIZAEZINEAN NEKAZAL ERAIKINEN KANPOKO ITXURA ARAUTZEKO ETA AISIAKO NEKAZARITZA ETA ABELTZAINZA JARDUERETARAKO TXABOLAK ETA BORDAK ERAIKI AHAL IZATEKO ORDENANTZA**

#### **1. artikulua – Helburua**

Honako araudi hau Alzoko Hiri antolamenduaren Plan orokorreko 68, 69, 70 eta 71. artikulua garatzeko idatzi da, eta aisiako nekazaritza eta abeltzaintza jarduerekin lotutako txabola, borda, eraikin eta estalpeen eraikuntzan eta erabileran Udalak izan behar duen jarduna eta hirigintza mailako eskumenak erabiltzeko modua arautzen ditu.

#### **2. artikulua – Aplikazio eremua**

Ordenantza hau Alzoko udal mugapean Lurzoru Urbanizaezin gisa sailkatutako lurretan aplikatuko da.

#### **3. artikulua – Nekazal erakinen kanpoko itxura baldintzak**

Sail honetan sartzen dira laborantza ustiaketei zuzenean uztartutako edo horien jarduera gehigarri eta osagarriei erantsitako eraikin finko eta egonkorak - ukuiluak, lastategiak, siloak, makineria gordetzeko biltegiak, eta abar-, etxebizitza erabilerak izan ezik.

Granjak eta abeltzaintzako ustiaketa trinkoetan izan ezik, guztiz galarazita daude, tximiniak, estalkiko leihatilak, isolamenduak, eguzki plakak, herriko ur saretik ur hornidura, gasa edo antzerakoak eta baita edozein instalazio era, hau da antenak eta abar. Argi indarra ere debekatuta dago granjak eta abeltzaintzako ustiaketa trinkoetan izan ezik edo ustiaketari lotutako baserritik, kontagailu bakar batekin egiten ez bada.

Debekatuta daude estalki lauak.

Eraikuntzaren ezaugarriak: hormigoizko zorua eta zurezko edo burdinezko itxitura. 1,50 m altuerako zokalo bat jarri ahal izango da, fabrikakoa, zarpiatua eta margotua ( txuriz edo kolore argiz)edo Harri-horma, hortik gora irekita edo modu finkoan argiztatu eta aireztatzen den sistemekin itxiko da, beti ere



## ALTZOKO UDALA

Tel. 65 24 13 — Fax: 65 09 55

20268 ALTZO (Gipuzkoa)

material zeharrargiekin. Xafla gorri izurtuzko eta zeramikazko teila makurrezko estalkia izango du beti ere kalitatezko materialekin, eta kolore ilunean margotutako zurezko arotzeria. Aireztapena lehiorik gabe egingo da, paretak sabaira iritsi gabe.

Zahar-berritze kasuetan ere ez da onartuko lehio berririk ateratzea, lehengoak mantentzea posible izango litzateke. Kasu hauetan aireztapena bermatu beharko da, beraz eraikinak bentilazioa bermatzeko irekiera finkoak izango ditu, leiho edo ateetan material zeharrargiekin. Hormapikoak irekita mantendu beharko dira. Burdin sareak onargarriak lirateke. beste baldintza guztiak eraikuntza berri baten baldintza berdinak izango lirateke.

### **4. artikulua – Aisiako jarduera eta eraikinen definizioak.**

4.1. **Aisiako jarduera:** aisiako nekazaritza eta abeltzaintza jarduerak izango dira, gehienez dimentsio hauek dituztenak:

- Baratzea – 300 m<sup>2</sup>
- Fruta-arbola batzuk – 2.000 m<sup>2</sup>
- Animalia txikiak – 10 oilo, 5 untxi edo antzekoak
- Azienda larri estentsiboa – Azienda Larri Unitate 1 (515/2009 Dekretuaren arabera baliokidetasunak) Jarduera horietako bat baino gehiago elkartzen badira partzela berean, jardueraren dimentsio osoa zein den jakiteko, dagokion baliokidetasuna kalkulatu da.

4.2. **Txabola:** nekazaritza zereginetarako baliagarria den behin-behineko eraikuntza txiki bat da, laborantzako tresna eta lanabesak eta animalia txikiak gordetzeko.

4.3. **Borda edo Estalpea:** azienda eta ustiapenarekin lotutako lanabesak gordetzeko eraikuntza da.

4.4. **Kutxa:** nekazaritzako lanabesak gordetzeko kaxa da.

Nekazaritza eta abeltzaintza profesionalerako eraikuntza handiagoak, bestalde, Altzoko Plan Orokorra eta aplikagarriak diren bestelako plan batzuetan horiei buruz xedatutakoaren arabera arautuko dira.

### **5. artikulua – Txabolak**

Nekazaritza zereginetarako baliagarria den behin-behineko eraikuntza txiki bat da, laborantzako tresna eta lanabesak eta animalia txikiak gordetzeko.

Erabilerak: soilik laborantzako lanabesak eta tresnak jasotzeko balioko du, eta baita animalia txikiak gordetzeko ere: gehienez ere, 10 oilo, 5 untxi edo antzekoak.



## ALTZOKO UDALA

Tel. 65 24 13 — Fax: 65 09 55

20268 ALTZO (Gipuzkoa)

Erabat debekatuta dago sukaldea, komunak eta berez etxebizitzarenak edo atsedenekuenak diren bestelako instalazio batzuk jartzea.

Lursailaren azalera: lursailak gutxienez 500 m<sup>2</sup> -ko azalera izango du.

Txabolaren azalera:

- 15 m<sup>2</sup>-ko txabola eraiki ahal izango dute ateriak barne holakorik balego, gehienezko azalera hauek dituzten jarduerak: 150 m<sup>2</sup> baratze, 500 m<sup>2</sup> mahasti, 1.000 m<sup>2</sup> fruta-arbola (edo horien baliokideak).

Txabolaren ezaugarriak: oinplano laukizuzena edo karratua izango du, teilatugailurrera gehienez ere 2,2 m-ko. Estalkia isurki batekoa edo bikoia izango da, eta gehienez ere % 30eko malda izango du. Debeekatuta daude estalki lauak eta atari arkupedunak. Aipaturiko azalera gaintzen dituzten elementu atxikiak eta teilatupeak egitea debeekatuta dago. Era berean debeekatuta dago erantsitako beste eraikin batzuk eraikitzea. Ondorioz partzela osoan egon daiteken eraikin bakarra txabola izango da.

Eraikuntzaren ezaugarriak: zurezko fatxadak; estalki bituminosoa edo xafla gorri izurtuzkoa; zurezko arotzeria, kolore ilunean margotua edo bernizatua; eta kolore beltzeko burdin sareak, ez dute leihorik izango, ate bakarra onartuko litzaioke.

Gutxienerako tartea: 5 m-ko tartea, lursailaren mugara eta bideetara; eta 10 m-koa, beste eraikuntza edo eraikinetara. Errepideetarako gutxienerako tartea, berriz, Errepideen Foru Araudian xedatutakoaren arabera izango da. Erreketatik izan behar duen gutxienerako tartea dagokion Erregalamentuak arautzen du. Beste txabola batzuekiko gutxienez 4m-ko tartea izan behar du eta beste eraikin batzuekiko gutxienez 20 m-ko tartea.

Ordenantza honetan araututako neurriak ahal den guztietan beteko dira, bete ezin direnean berriz behar bezala justifikatu beharko dira eta udal baimena izan beharko da egin ahal izateko.

### **6. artikulua –Bordak**

Azienda biltzeko eta jarduerarekin lotutako lanabesak gordetzeko behin-behineko eraikuntza da. Sartu nahi den animalia kopuruaren arabera azalera eraikia izango du; gaur egun kontsolidatuta daudenak karakteristikak mantenduko dituzte, berriak Foru Aldundiko baimena beharko lukete.



## ALTZOKO UDALA

Tel. 65 24 13 — Fax: 65 09 55

20268 ALTZO (Gipuzkoa)

Erabilerak: Soilik animaliak estalpetzeko erabiliko da —gehienez ere Azienda Larri Unitate baten baliokidea (515/2009 Dekretuaren arabera. 1. eranskina)— bai eta horiekin lotutako tresnak gordetzeko ere.

Erabat debekatuta dago sukaldea, komunak eta berez etxebizitzarenak diren bestelako instalazio batzuk jartzea eta ibilgailuak gordetzea. Beraz guztiz galarazita dago, tximinia, eguzki plakak, herriko ur saretik ura, gasa edo antzerakoak eta baita edozein instalazio era, hau da antenak eta abar.

Lursailaren azalera: lursailaren gutxieneko azalera 2.000 m<sup>2</sup>-koa izango da, eta abere kargari egokitu beharko zaio: Azienda Larri Unitate 1/Ha.

Estalpearen ezaugarriak: oinplano laukizuzena edo karratua izango du; teilatu hegalerak gehienez ere 2,2 m-ko altuera eta teilatu gailurrera 3,2 m-koa; eta aldeetako bat, gutxienez, zabalik eduki beharko du. Estalkia bi isurkikoa izango da, eta gehienez ere % 33eko malda izango du. Debekatuta daude estalki lauak. Leihoak debekatuta daude eta ez dira itxiko 1,50 metrotik gora itxiturako perimetro-murruan ondoren aipaturiko barruti itxia izan ezik.

Debekatuta dago atari arkupedunak eraikitzea eta barnealdean banaketak egitea.

Alabaina, estalpearen barnealdean barruti itxi bat jartzeko aukera egongo da, gehienez ere 8 m<sup>2</sup>-koa, tresnak gordetzeko eta materiala biltegitzeko.

Eraikuntzaren ezaugarriak: hormigoizko zorua eta zurezko edo burdinezko itxitura. 1,50 m altuerako zokalo bat jarri ahal izango da, fabrikakoa, zarpiatua eta margotua ( txuriz edo kolore argiz)edo Harri-horma. Xafla gorri izurtuzko eta zeramikazko teila makurrezko estalkia izango du beti ere kalitateko materialekin, eta kolore ilunean margotutako zurezko arotzeria.

Instalazioak: ura behar izanez gero, partzela bakoitzean ur bidoi bat instalatzea onartuko da, 200 litroko edukiera duena. Ez da Herriko saretik ur-iturririk baimenduko.

Gutxieneko tartea: 20 m-ko tartea, lursailaren mugara, bideetara; eta beste eraikuntza edo eraikinetara. Errepideetarako gutxieneko tartea, berriz, Errepideen Foru Araudian xedatutakoaren arabera izango da.



## ALTZOKO UDALA

Tel. 65 24 13 — Fax: 65 09 55

20268 ALTZO (Gipuzkoa)

Zaharberritze kasuetan ere ez da onartuko leiho berririk ateratzea, lehengoak mantentzea posible izango litzateke, beste baldintza guztiak borda berri baten baldintza berdinak izango lirateke. Kasu hauetan aireztapena bermatu beharko da, beraz eraikinak bentilazioa bermatzeko irekiera finkoak izango ditu, leiho edo ateetan.

### **7. artikulua – Kutxak**

Gutxienera azalerarik ez daukaten lursailetan, lanabesak gordetzeko kutxa bat instalatu ahal izango da.

Kutxak gehienez neurri hauek izango ditu: 2,5 x 0,8 m eta 0,5 m-ko altuera, etzanda jartzen bada.

Zutik ere jarri ahal izango da, eta orduan neurri hauek izango ditu gehienez: 2 m-ko altuera eta 0,8 x 0,8 m-ko aldeak.

Materiala: zurezko estaldura izango du.

### **8. artikulua – Kokalekua**

Paisaiari ahalik eta eragin txikiena egingo dion lursaila gunean jarriko da eraikuntza, eta, betiere, Udaleko zerbitzu teknikoek emandako irizpenaren arabera mugatuko da.

Lurbetetze handiegirik ez egiteko, bertako topografia aztertu eta behar diren neurri zuzentzaileak hartuko dira.

Udalak, dena den, eraikuntzaren inguruan zuhaitzak landatzeko eskatu dezake, haren begi-inpaktua arintzearen.

### **9. artikulua – Lursaila**

Katastroko lursailak sarbidea eduki beharko du bide publikotik edo pribatutik.

Katastroko lursail bakoitzean txabola, estalpe edo kutxa bakarra eraiki ahal izango da.

Lursailari itxitura jarriko zaio soil-soilik, azienda gobernatzeko edo baratzeak babesteko beharrezkoa baldin bada. Ahal dela, zurezko hesola eta altzairu herdoilgaitzezko sarearekin, landare esiekin edo zurezko hesiekin egingo da. Debekatuta egongo dira, nolahi ere, aurrefabrikatutako blokeekin egindako itxiturak, ageriko hormigoizko hormatxoak eta sare metalikoetako burdin-hesiak.

### **10. artikulua – Lizentziak**

Txabola edo estalpe bat eraikitze edo kutxa bat instalatzeko, ezinbestekoa izango da aldeaz aurretik Udalaren lizentzia lortzea. Lizentzia lortzeko prozedura honen arabera emango da:



## ALTZOKO UDALA

Tel. 65 24 13 — Fax: 65 09 55

20268 ALTZO (Gipuzkoa)

1. Alkateari zuzendutako eskaria egingo da. Eskaerarekin batera, honako dokumentazio hau aurkeztu beharko da Udal Erregistro Orokorrean:

Txabola jartzeko:

- lursailaren planoak, txabola non joango den zehaztuta, eta baita oinplano eta sekzio bakoitzaren krokisa ere, altuerak eta azalera adierazita.
- memoria labur bat: egingo den jarduera mota, eraikuntzaren justifikazioa eta erabiliko diren materialen deskribapena jasoko dituzte.
- aurrekontua.
- Eskatzaileak egiaztatu edo frogatu egin behar du lursailaren titularra dela edo, bestela, txabola kokatuko den finkaren titularraren adostasuna aurkeztuko du.

Estalpea jartzeko:

- Nekazaritzako Ustiategien Erregistroko ziurtagiria.
- teknikari eskudunak sinatutako proiektua, honako hauek bilduko dituena: lursailaren planoak, estalpea non joango den zehaztuta; oinplanoen, sekzioen eta altxaeren planoak; eta eginkizun mota, eraikuntzaren justifikazioa, hondakinen kudeaketa, erabiliko diren materialen deskribapena eta aurrekontua jasoko dituen
- justifikazio- memoria.
- Eskatzaileak egiaztatu edo frogatu egin behar du lursailaren titularra dela edo, bestela, txabola kokatuko den finkaren titularraren adostasuna aurkeztuko du.

Kutxa jartzeko:

- Eskatzaileak egiaztatu edo frogatu egin behar du lursailaren titularra dela edo, bestela, txabola kokatuko den finkaren titularraren adostasuna aurkeztuko du.
- Egin beharreko obra deskribatzeko memoria, eta lursailaren planoak, kutxa non jarriko den zehaztuta.

2.- Eskaria Udal zerbitzu teknikoek aztertu eta dagokion txostena egingo dute.



## ALTZOKO UDALA

Tel. 65 24 13 — Fax: 65 09 55

20268 ALTZO (Gipuzkoa)

3.- Aurkeztutako eskariarekin batera dagoen dokumentazioan antzemango balitz zerbait falta dela edo aurkeztutakoa ez dela nahikoa, orduan eskatzaileari jakinarazpena bidaliko zaio falta den dokumentazioa osatzeko eskatzeko. Eskatzaileak jakinarazpen hori jasotzen duen egunetik aurrera 15 eguneko epea izango du aurkeztu beharreko gehigarria aurkezteko. Epe hori pasatu eta eskatzaileak ezelako dokumentaziorik aurkeztu ez badu, espedientea, bestelako tramiterik gabe, artxibatu egingo da eta eskatzaileari ordu-arte aurkeztutako dokumentu guztiak itzuli egingo zaizkio.

4.- Eskaria aurkeztu den egunetik aurrera 3 hilabeteko epea egongo da erantzuna emateko. Eskari hori erantzuteko almena Alkatearena da. Aipaturiko 3 hilabeteko epe horretan eskariari berariazko erantzunik ematen ez bazaio, lizentzia ez dela onartu ulertu beharko da.

### LIZENTZIA EMANEZ GERO, HAUEK DIRA BETE BEHARREKO BALDINTZAK:

Indarrean dagoen araudiaren arabera baldintza espezifikoak ezartzeko aukeraren kaltetan gabe, lizentzia guztien baldintza orokor hauek beharko dituzte:

1.- Ordenantza honen babesean emandako lizentziek lau urteko iraunaldia izango dute. Lizentzia berria lortzeko, beharrezkoa izango da aurrekoaren amaiera data baino hilabete lehenago titularrak Udalari idatziz eskatzea, eta dagokion egiaztapen administratiboaren ondoren eta aplikatu beharreko Arandia betetzen dela egiaztatuta, lizentzia berria emango da. Eskararik egiten ez bada edo lizentziarik ezin bada eskatu 13.artikuluari jasotakoa aplikatuko zaio.

2.- Lizentziaren titularrek lizentziak babesturiko eraikinetako sarrera erraztu beharko diote Udal Administrazioari, ikuskatze, zaintze eta kontrolatze eginkizuna betetzeko. Betekizun hori betetzen ez bada lizentzia kendu, instalazioa bota eta ingurua, aurretik dagoen egoera berberean utziko da. Ikusapena egingo duen Udal langileak agintaritzaren agenteen iritzia izango du, ahalmen duak baitaude identifikatu ostean, eta alde aurretik abisatu gabe, Ordenantza honek arautzen dituen instalazioetara sartzeko.

3.- Lizentzia jabetasun eskubidea salbu eta beste inorentzat kaltetan gabe ematen da.





## ALTZOKO UDALA

Tel. 65 24 13 — Fax: 65 09 55

20268 ALTZO (Gipuzkoa)

4.- Lizentzia hartzaileak bere eginkizunetan zehar erantzukizun zibil edo penalik izango balu, ezin du lizentzia erabili erantzukizun hori baztertzeko edo gutxitzeko.

5.- Ordenantza honek erregulatzen dituen eraikinek bera kokatuta dagoen zonaldearen garapen urbanistikoan trabarik eragingo balu edo ingurunearen itxura, paisaia eta osasun publikoari kalterik egingo balio, lizentziaren titularrak, Udalak espresuki eskatu ondoren, txabola bota egin beharko luke. Txabola botatzeko gastuak titularrak berak ordaindu beharko ditu eta egin behar horregatik ez du inolako kalte ordainik jasoko.

Dena den, lizentzia emateak ez du esan nahi hirugarrenen baimenak edo sektoreko beste administrazio batzuenak (errepideak, gune naturalak, etab.) lortu behar ez direnik.

Ordenantza honen babesean emandako lizentzia guztiak behin-behinekotzat joko dira beti, eta inolako kalte-ordainik eman behar izan gabe eraitsi ahalko dira, ekainaren 30eko 2/2006 Legeak, Euskal Herriko Lurzoru eta Hirigintzari buruzkoak, 37. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz.

Dagokion erabilerari eutsi artean egongo da indarrean eraikuntza; hala ez denean, lizentziari esker eskuratutako eskubideak galduko dira.

Lizentziaren titularrak, bestalde, derrigorlari daude Udal Administrazioari lizentziak babestutako eraikuntzetara sartzen uztera, hark ikuskatze, zaintza eta kontrol lanak egin ditzan.

### **11. Artikulua. Aldatutako ingurua lehengoratzea.**

Ezarriko diren zigorrei kalterik egin gabe, lizentzia gabe egindako eraikinetan eta ezin direnak legeztatu edo emandako lizentzia ez betetzeak eragindako kalteak konpontzeko derrigorra ekarriko du, aldatutako ingurumen naturala lehengoratzeko, eraikinak bota behar izatea barne.

### **12.- Arau-haustea eta zigorrak.**

Ordenantza honen zehaztapenak ez betetzeak, Euskadiko Ingurumenaren Babeskuntzaren Orokorrari buruzko otsailaren 27ko 3/1998 Legeak ezarritako eran eta baldintzetara izango dira zigortuak. Hori, zigor bide edo bide zibilean eska daiteken erantzule kalterik egin gabe.



## ALTZOKO UDALA

Tel. 65 24 13 — Fax: 65 09 55

20268 ALTZO (Gipuzkoa)

### **XEDAPEN GEHIGARRIA**

Ordenantza honen arabera eraikitzen ez diren eraikuntzak ekainaren 30eko 2/2006 Legeak, Euskal Herriko Lurzoru eta Hirigintzari buruzkoak, xedatutakoari lotuko zaizkio.

### **AZKEN XEDAPENA**

Honako Ordenantza hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean, eta halaxe jarraituko du, harik eta hura indargabetzea edo aldatzea onartzen den arte.

#### **1. ERANSKINA**

AZIENDA LARRI UNITATEEN BALIOKIDETASUNAK, 515/2009 DEKRETUAK, IRAILAREN 22koak, ABELTZAINZAKO USTIATEGIETAKO ARAU TEKNIKOAK, HIGIENIKO SANITARIOAK ETA INGURUMENETAKOAK EZARTZEN DITUENAK, XEDATUTAKOAREN ARABERA:  
AZIENDA MOTA ADINA/PISUA AZIENDA LARRI UNITATEA

Behi-azienda 12 hilabetetik beherakoak 0,360

12 hilabete eta 2 urte artekoak 0,610

2 urtetik gorakoak (esne-behiak) 1,000

Bestelako behiak 0,660

Ardi-azienda Arkumeak 0,040

Ugaltzaileak 0,070

Ahuntz-azienda Antxumeak 0,040

Ugaltzaileak 0,090

Zaldi-azienda 2 urtetik gorakoak 0,570

6 hilabete eta 2 urtera artekoak 0,340

#### **2. ERANSKINA**

ANIMALIA BAKOITZEKO AZALERA ERAIKIGARRIAK

Behi-azienda Behiak 6 m<sup>2</sup>

Txekorrak 2 m<sup>2</sup>

Ardi-azienda/Ahuntz-azienda Ugaltzaileak 1,5 m<sup>2</sup>

Zaldi-azienda Behorrak 6 m<sup>2</sup>

Behorra+moxala 8 m<sup>2</sup>

2013